

### **Funtsezko baliabideak**

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure funtsezko baliabideak:

- Baliabide fisikoak: hortzetako laborategi protesikoa irekiko dugun lokala, protesiak egiteko erabilitako materialak eta makinak, ordenagailua eta telefonoa, gure bezero eta bazkideekin harremanetan jartzeko.
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: protesiak egiten lagunduko duten boluntarioak eta gizarteari egiten diogun ekarpena.
- Finantza-baliabideak: Eusko Jaurlaritzaren laguntza ( [2025erako bizikidetza eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntzak](#) ), laguntzaileen finantza-baliabideak eta donazioak.

Elkartearentzat, lehen aipatu dugun bezala baliabide garrantzitsuenetako bat boluntarioak dira, gure proiektuaren oinarria dira. Era guztietako laguntza jasotzeko prest gaude, hortz-protesikoak, dohaintzak ematen dituzten pertsonak, hezkuntza zentroak eta pertsona lagundu ahal izateko gurekin elkarlanean arituko diren hortz-klinikak.

Web orri bat egingo dugu atal desberdinekin, LaguDent-i buruz informatu nahi duen edonork aukera izan dezan zati bakoitzari buruz gehiago jakiteko. Gainera, gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, bai proiektuan parte hartu nahi duten pertsonak, bai gure zerbitzua behar dutenak. Laburbilduz, webgunea bisualki eta atalka bereizita geratzeko moduan diseinatuta dago, sartzen den pertsona bakoitza aurrez pentsatuta duen atalera zuzenean sar dadin. Hona hemen webguneak izango dituen atal ezberdinen zirriborroa:



## \*LAGUN EZAZU\*




### Boluntario izan nahi duzu?

Informa zaitez gure boluntarioria-proiektuei buruz eta aukeratu gehien interesatzen zaizuna.



### Egin zaitez bazkide

Aldizkako zure ekarpenarekin materiala erosten laguntzen diguzu



### Eman nahi al duzu?

Ekarpen bakoitzak irribarre eragiten die.

## Jarri gurekin harremanetan

Sartu zure datuak eta laster jarriko gara zurekin harremanetan. Laster zure berri izatea espero dugu.

Posta elektronikoa

Mesua

BIDALI